

argazkigintza > argi-ITZALAK

Afizioz eta ofizioz

Argazkigintzak bizi du Iñaki Kaperotxipi, eta, aldi berean, argazkilaritza du bizibide. Denetik egiten du, baina bidaia irudiak atsegin ditu gehien.

IDOIA ETXEBERRIA

Hogei bat urterekin hasi nintzen Zarauzko Argazkizale Elkartearen laborategian ibili pixka bat, eta gero ni bakarrik, aurrera!». Iñaki Kaperotxipi (1958, Zarautz) argazkigintzan hasi zenean, Photoshopik ez zegoen; gela ilunean eman zituen lehen pausoak. «Asko gustatzen zitzaidan zuri-beltzean lana egitea. Gero hasi nintzen diapositibekin, koloretan errebelatzen». Digitalarekin, berriz, orain dela lauzpabost urte hasi zen. Eta baita jarraitu ere; egun, digitala da haren oinarria: «Donostiara eraman nuen nire ekipo osoa, eta den-dena saldu, motxila ere bai! Horrekin, e-mac txiki bat eta Canon reflex digitala erosi nituen».

«Digitalarekin errazagoa da argazkiak egitea. Lehen, egun batean bi diapositiba film egiten bazenituen, orain 300 edo 400 argazki ateratzen dituzu. Bota, bota eta bota. Bikoitza, edo gehiago! Eta, noski, horiek denak prozesatzea lan handia da». Izugarria. Horregatik, beti saiatzen da gehiegi ez ateratzen: «Argazkia ondo badago, bakarra botatzen, eta ez hiru edo lau. Dena gorde, antolatatu... Urtero bi disko gogor erosi behar izaten ditut». Azkenekoa aste honetan bertan erosi du: 500 GB-koa.

«Beti gustatu izan zait neure kabuz gauzak egitea». 1992an egin zuen lehen erakusketa, Zarautzen. «Erretratuak, natura hila... denetik. Lan handia eman zidan, baina egin nahi nuen, eta azkenean lortu nuen». Handik hona, erakusketa asko egin ditu. Eta sariak ere ez ditu gutxi eskuratu. Aurten go Argizaiola, adibidez.

Ez zaio argazkiak ateratzeko aukerarik falta izan, ogibidez ere argazkilaria baita. «17 urtez aritu naiz Zarauzko enpresa batean argazkilaria; orain dela hilabete utzi dut. Orain langabezia nago, urte erdi-sabatikoa dut... eta hurrengo urtean autonomo jarriko naiz». Ez kontzetako argazkiak egingo ditu, baina ez hori bakarrik: «Aldizkarietarako argazkiak, bezeroek eskatutakoak... Denetik. Webguneko argazkiak ere askotan eskatzen dizkirate». Bidaia argazkiak dira.

BIDAIA ARGAZKIAK. Gehien-gehiena bidaiako argazkiak gustatzen zaizkio. «Egona naiz Indian, Afrikan...



Itzalak.



Birmaniar egindako bidaiaren ateratako argazki bat.

Asko gustatzen zait bidaiatzea. Eta jendea irretatuak egitea ere bai». Biak batuta, pozarren ibiltzen da. Gainera, «digitalarekin, hango jendea irretatzea posible da. Barre egiten dute... Errazagoa da, nik uste, irretatuak egitea». Azken bidaia Papua Ginea Berrira egin zuen, abuztuan. «Bidaia nahiko arraroa izan zen, nire andre-gaiak hanka puskatu zuen eta. Hirugarren egunean bueltatu behar izan genuen!». Hala ere, etekina ateratu dio bidaiari: Papuako argazki batekin saria irabazi berri du!

Musika da haren beste zaletasun bat, eta bi ikus-entzunezko prestatu ditu argazkiak baliatuta: Etiopia eta Birmania. Eta baita zenbait herritan erakutsi ere: Bergaran, Orion, Oizartzen, Zarautzen. Natura hilak egiten ere badihardur: «Edalontziak, sardexkak... argi politarekin». Argi-itzaletan. Egunotan Bilbon jarria duen erakusketan ikus daitezke.

Ez darama argazki kamera beti aldean, baina gai da irudiak buruan gorde eta ateratzera bueltatzeko. «Asteburuetan denetik egiten dugu, lagunartean. Arantzazu-

■ nortasun aquiria

- **Izena:** Iñaki Kaperotxipi Azpiazu.
- **Jaio:** Zarautzen, 1958an.
- **Ogibidea:** Argazkilaria. Enpresa baten-tzat lanean jardun du urte askoan. Orain autonomo hasiko da.
- **Argazkilaritza:** 20 urterekin hasi zen ikasten, Zarauzko Argazkizale Elkartearen.
- **Sariak eta erakusketak:** 1992. urtean egin zuen bere lehen erakusketa, Zarautzen. Handik hona, ugari izan ditu, eta oraintxe bertan ere badu bat, Bilbon, Taberna de los Mundos-en, azken Argizaiola saria berak lortu duelako. «18 natura hil dira». Gainera, Gipuzkoa Trofeoan Sari Nazionala irabazi berri du, Guinea-Papuan ateratako argazki batekin.
- **Sarean:** www.ikapero.com da haren webgunea.
- **www.federacionfotografica.org**



ra edo olatuei argazkiak ateratzera joan...». Kaperotxipi abizena euskalduna da, baina berak erdal grafiaz idazten du (*ch*), bere aitona bezalaxe: «Margolaria zen, eta esaten zuen hala politagoa dela, italiarra ematen duelako».



Zuhaitzak, baso elurtuan.



Papua Ginea Berrian ateratako argazkietako bat.

oreka tx

CD BERRIA
nómada tx



www.ikapero.com

Dagoeneko salgai!